

ITSASERTZ ETA KOSTALDEKO HABITATAK KLIMA- ALDAKETAREN AURREAN DUTEN ZAURGARRITASUNAREN AZTERKETA

Posted on 10/10/2025 by Naider

Category: [Albistea](#)

Tags: [Arrisku klimatikoen ebaluaketa](#), [Kostaldeko habitatak](#)

Aste honetan dinamizazio-saio bat gidatu dugu [“EAEko komunitate eta eskualde intereseko itsasertz eta kostaldeko habitaten klima-aldaketarekiko zaurgarritasunaren eta arriskuen azterketa eta ekintza-planaren proposamena”](#) proiektuaren baitan.

Saioan ekosistema marinoekin lotutako hainbat arlotako adituek parte hartu zuten, eta haiekin batera aztertu genituen aztergai izango diren habitaten lehen identifikazioa eta haiei eragiten dieten inpaktu-kate nagusiak. Eduki horiek aurretik AZTIren taldeak landu zituen, lhobek gidatutako proiektu honetan gurekin batera diharduen erakundeak.

Saioak aukera eman zuen azterketaren funtsezko elementuak zehazten eta ekintza-plana prestatzeko oinarri teknikoa sendotzen jarraitzeko. Hurrengo hilabeteetan, prozesuak aurrera egingo du adituen komunitatearekin batera egindako lan- eta kontraste-saio berriekin.

Mila esker saioan bere ezagutza partekatu zuten eta hurrengo hilabeteetan proiektuan parte hartzen jarraituko duten guztiei.



